

telebista ♦ irratia

Kike Amonarriz • 'BAI ZERA!' SAIOAREN AURKEZLEA •

«Notiziak formatu eta tonu egokian josteak ematen digu lanik handiena»

I. Basterretxea / Donostia

LAUGARREN astea du *Bai zera!* ETBleko saioak. Informatibo ezohikoa da; izan ere, albisteen alderdi ezkutua azaleratzen du. Kike Amonarriz gustura dago orain arteko lanarekin: «Nik uste dut bide onean goazela». Amonarrizek eta Jasone Osorok aurkezten dute, astelehenetik ostiralera, eguerdiero.

■ **Dagoeneko bete ditu 20 saio *Bai zera!*-k. Zein da orain arteko balantzea?**

Lanean oso gustura ari gara, ilusio handiz; izan ere, beldur pixka bat ere bagenion, formatu berria delako eta albisteei alderdi ezkutua bilatu behar diegulako. Hori egunero egitea erronka handia da. Era horretan, ETBlean formatu berri bat sortzea, funtzionatzen duen formatu bat egitea garrantzitsua da. Gainera, jaso ditugun kritikak ere nahiko onak dira.

■ **Zerk ematen dizue lanik handiena?**

Tonu eta formatu berri horretara iristeak. Egin kontu albiste bakoitzak tonu berezia behar duela. Kasu batzuetan tragikoa da tonua, Jugoslaviari buruzko monografiko bat egin



GARI GARAIALDE

genuen eta tragikoa zen, eta hor bai, hor saiatsu ginen ezkutuan izan zitezkeen klabeak azaleratzen; eta oso jende jantziak, esate baterako, esan digu egunkarietan aurkitzen ez zituen klabe batzuk entzun zituela oso modu argian. Beste kasu batzuetan komentario ironikoak egiten dira. Beste batzuetan ezusteko alderdia lantzen da, inork espero ez genuen notizia bat sortzen

delako: gertatu zaigu guk notizia bat eman eta handik egun batzuetara egunkarietan agertzea; adibidez, Euskal Herrian kutxazain automatikoetan gertatzen ari diren bi iruzurren berri jaso genuen, eta handik egun batzuetara bi iruzur horietako baten berri eman zuen Ertzaintzak. Notizia tonu egokian lantzeak eta, gainera, formatu koherente eta interesgarri batean eskaini

ahal izateak ematen digu lanik handiena. Eta nik uste dut bide onean goazela.

■ **Orain arte egin dituzun saioekin konparatuta, zein da zuretzako ezberdintasunik handiena?**

Fikzioz gabeko lana da hau: informatibo bat da, ezohikoa, baina informazioarekin ari gara lanean. Alde horretatik, *Balinda* saioan egindako lanarekin lotzen da; soziolinguistikaren ingurukoa zen hura. *Sikofonian* fikzioa eta errealtatea nahasten dira. Azken bolan baina, fikzioa eta umorea nahastu ditut gehiago; eta hor klabe aldaketa dago *Bai zera!*-rekin alderatuta.

■ **Horretarako zailtasunak izan dituzu?**

Zailtasun batzuk bai, ohitura eta baliabide batzuk baztertu egin behar direlako. Baina, bestetik, ikuspegi eta txip aldaketa bat da.

■ **Astean saio bat egitetik egunero egitera alde handia dago?**

Bai, hori da beste desberdintasunetako bat. Lehen nire lan denboraren zati bat hartzen zuten programek, baina honek denbora guztia hartzen dit. Horrez gainera, egunerokoak sortu ahala jan egiten du, hausnarketarako tarte gutxiago dago.

laburrean

■ **Maiatzaren 10eko grebak audientzian ez du eragin handirik izan telebista kateen arabera, baina FIATYRek esan du milioi bat lagunek egin dutela**

«Publizitate bonbardaketaren aurka» protesta egiteko, maiatzaren 10ean telebistarik ez pizteko eskatu zuen Ikus-entzuleen eta Irrati Entzuleen Espainiako Elkarteak (FIATYR). Elkar-tearen arabera, milioi bat lagunek baino gehiagok erantzun diote greba deialdiari Espainiako Estatu osoan. Telebista kateen arabera, ordea, ez du eragin handirik izan deialdiak. «Audientzian, behintzat, ez da igarri», esan dute zenbait telebistatako ordezkariek.

■ **'Euskovision' kantu lehiaketaren inguruko 'Lourvier's express' umore saioa gaur**

Euskovision kantu lehiaketa fiktizioaren gainekoa izango da gaur *Lourvier's express* umore saioa. Beste modu batean esanda, Eurovision kantu lehiaketaren parodia egingo dute. Horrela, gezurrezko lehiaketa antolatuta dute Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkarria hautatzeko: *Eskovision*. Saioko hiru aktoreek probintzia bana ordezkatuko dute: Lourdes Bediak Bizkaia, Oscar Terolek Gipuzkoa eta Javier Merinok Araba. Kantu lehiaketa xelebre horren aurkezleak, berriz, Edurne Ormazabal Euskadi Gaztea irratiko zuzendaria eta Kike Diaz de Rada aktorea izango dira. Ohi bezala, gaueko albistegiaren ostean eskainiko dute, 22:00etan, ETB2an.

■ **Itsu bat protagonista 'Nicolás' marrazki bizidunetan**

Espainiako Telebistak (TVE), Espainiako Itsuen Elkarteak eta BRB ekoiztetxeak *Nicolás* marrazki bizidunak egin dituzte, eta TVEk datorren urtean emitituko ditu. Gainontzeko marrazkiekin alderatuta, desberdina da itsu bat delako protagonista: Nico izeneko mutiko bat.

txoritxoari mokoka ♦ Ines Intxausti

INOLAKO umiltasunik gabe esango dizuet esan beharrekoa. Lagunak direnek eta ez direnek zutabe honetan egin ditudan piperrak lehenbailehen betetzeko eskatu didate. Eta ez pentsa edonork esan didala halakorik. Urte honetako udaberria munduko luzeena egin zait. Eta hori ez da batere osasuntsua niretzat. Krisialdian sartzen naizen bakoitzetan, putzuaren hondoraino erori arte ezin naiz inora igo, ezin dut burua inora atera. Eta, dirudienek, behin-behinean egon naiz zulo beltz sakon horretan, hemen naukazuelako. Hori baita frogia. Telebista ez da batere lagungarria egoera larrietan. Agian, arratsaldeko orduetgia besteen arazoak aztertzeke erabilgarria suerta daiteke. Horrela ez dituzu zureak hain hurbil eta argi ikusten. Zorionez, ez dut denbora galdu telebista

Umiltasunik gabe

aurrean. Kontraesana bada espazio honen helburuarekin jarraitzeke, noski.

Leihotik begiratuta, leku erosoak dirudi unibertsoak. Egunkariak, berriz, Kosovoko irudiekin freskatzen digute aurpegiko lotsa. Eta errentagarritasun handiak sortzen dituzte irudi horiek, gainera. Ez pentsa. Ezer ez da inozoa. Eta are gutxiago ni neu. Programa guztiek daramaten abiadura azkarra diru poltsen bila dabilzalako izaten da. Fidakarriak izan zitezkeen, baina ez dira. Estatistikan, ezinezko zientzia maltzur horretan, ez dugu sinetsi behar. Adibidez, aipa ditzagun audientziak neurtzen dituzten aparailuak. Jakin dezakegu nortzuk diren gure gogoak manipulatzeko

duten aukeratuak? Non jarri duten halako neurtzailea eta zergatik? 250 omen daude Hego Euskal Herrian. Horrelako zerbaite esan zuen behin Luis Mendizabalek bere hirugarren *millenium*-ean. Gutxi iruditzen zait, baina asko omen dira estatuan daudenekin parekatuta. Gardenagoak izan beharko lukete, eta ez dira. Agirretar anonimoez islatzen dute gure gustuko programazioa, etxean halako aparailu berezia dutelako. ETBkoek telesail probisionalak asmatu beharko lukete, non protagonistak Agirretar telebisiboa lirartekeen. Eta kontuz ibili pantailan halakorik ikusten badut... egile eskubideak ordaindu gabe, noski. Hori gai labaina da telebistan, gainera. Gidoigileek zarama esku artean itxuraldatzeagatik kobratzen dute. Behin eta berriro. Eta berriro...